

FUNTSEZKO JARDUERAK

Hasteko, gure produktua sortzeko prozesuaren fase batez arduratuko gara. Konkretuki, sentsoreak programatu eta saretxoan sartzea datzan fasea.

Hori gauzatzeko, hainbat material beharko ditugu:

Lehenik eta behin, gure fabrikazio fasearekin hasi baino lehen, Gureak Ehungintza enpresarekin akordio moduko bat sinatuko dugu. Haren arabera, oinarritzat erabiliko dugun saretxoa ekoiztuko dute eta zuzenean gure lokalera bidaliko dituzte.

Horrela, gure proiektuaren lehenengo atala gauzatuko dugu.

Aldi berean, XOSS epresatik altuera eta abiadura neurtzen duten hainbat sentsore eskuratuko ditugu eta gure enpresako programadoreak martxan jarriko ditu, prozesurako espezializatuta dauden materialak erabiliz. Material horiek edozein webgune edota dendan erosiko ditugu.



Aurrekoarekin jarraitzeko, txirrindaren gurpilak puzteko erabiltzen diren aire ponpak Alibaba enpresa txinatarraren eskuz eskuratuko ditugu. Aire ponpa hauek erabiliko ditugu, txirrindan duten funtzioa aprobetxatuz.

Modu horretan, gure egin beharrekoa bukatuko genuke.

Azkenik, sentsoreak era bat piztuta eta aire ponparekin saretxoan lotuko ditugu, saretxoaren mekanismoa erabat martxan jarriz.

Erabilitako materialak gero eta merkeagoak izatea saiatu garenez, amaierako produktuaren kostua ez da oso altua izango. Pentsatu dugu 89,99€tan merkaturatzea. Gainera, ekoizpenaz gain, salmentari eta marketingari buruzko gauzetaz arduratuko garenez, hainbat ordenagailu erosiko ditugu gure lokaletik lan egiteko.